


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

PRIM 61



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1919

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, bi fatxada dituena. Erdisoto garaia, bastardea eta bi goi oin ditu, Harlanduzko fatxadak ditu, eta harlanduzko gorputz irtena Prim kaleko fatxadako ezkerreko bakoan eta hormigoizko gorputz zentral aurreratua bastardean Gernikako Arbolaren Pasealekurantz. Gernikako Arbolaren Pasealekura terraza du. Eraikin hustua.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez, planteatutako lehengoratzek eragindakoak izan ezik.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Prim kaleko fatxadaren, bastardeko ezkerreko bakoaren lehengoratzea (gaur egun dintelaren kaltetan handituta dago).
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintza orokorrak betetzeari loturikoa.